

Globalizazioa eta nazionalismoa: Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren kasua

Eki Etxebarria Respaldiza

Globalizazio-prozesuak eta nazio-estatuaren krisiak gizarte-mugimenduen diskurtsoetan eragina izan duten bezala, nazionalismoen bilakaera ere eragin dute, Mendebaldeko zenbait eskualderen sezesio-prozesuen berpizkundea ekarriz. Ildo horretan, nazionalismoen diskurtsoaren eboluzioa gertatu da, mugimendu global berrien «demokrazia erradikal»aren ideian kokatuz. Garapen hori Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren kasuan ere gertatu da, eta «klase-gatazka» edo «iraultza» bezalako kontzeptuak indarra galtzen joan diren heinean, «demokrazia» edo «erabakitze eskubidea» diskurtsoaren erdigunean kokatzera pasatu dira. Hori dela-eta, euskal nazionalismo erradikalaren paradigma berri baten aurrean gaude orain, negoziazio-fasetik eraikuntza nazionalera salto eginez, izaera iraultzailetik demokratikora pasatu dena, eta ezker postmaterialistaren ideiak bereganatu dituena.

GAKO-HITZAK: Globalizazioa · Nazionalismoa · Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua · Demokrazia.

Globalization and nationalism: the Basque National Liberation Movement's case

Since the 90's, the globalization process and the Nation-state's crisis have had a relevant impact on the evolution of social movements. The conflicts created by the globalization process explain also the strength of nationalist secessionist movements nowadays in Scotland, Catalonia... In that sense, the evolution of nationalist discourses has happened, standing in the new global movements' idea of «radical democracy». This evolution has taken place also in the Basque National Liberation Movement, and topics like «class struggle» or «revolution» have been replaced by «democracy» or «the right to decide». That is why we are in front of a new paradigm of basque radical nationalism that has gone from a revolutionary character to a democratic one, adopting the ideas of the postmaterialistic left and moving from negotiation to nation building phase .

KEY WORDS: Globalization · Nationalism · Social movements · Basque National Liberation Movement, · Democracy.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.104.2018.4>

Jasotze data: 2017-05-04

Onartze data: 2017-09-14

1. Sarrera

XXI. mendearen hasiera honetan, globalizazioaren eta nazio-estatuaren krisiaren testuinguruan, gizarte-mugimenduen ezaugarrien eraldaketa gertatu da. Aldaketa hori batez ere «mugimendu global berri»-en edota «ezker berri»-en berezitasunetan antzematen da. Gizarte-mugimenduen artean, nazionalismo berrien berpizkundea ere gertatu da. Izan ere, nazionalismoak indar berezia eta ezaugarri guztiz berritzaileak hartu ditu XXI. mendean, alegia globalizazioaren eta modernitate-krisiaren eraginak indartsuen etorri direnean, demokrazia eta gizarte-ongizatearen atzerakadarekin lotuta. Gainera, estatuak gero eta pluralagoak bihurtzen ari dira, eta eremu lokalago bati lotutako identitateak indartzen joan dira. Horrek nazionalismo periferikoen protagonismo berri baten aurrean jartzen gaitu.

Euskal nazionalismoan ere aldaketak gertatu dira globalizazioaren aroan. Abertzaletasunak euskal gizartean aspalditik indarra izan arren, beste paradigma baten pertzepzioa dago. Borroka armatuaren amaieraren ondorioez gain, euskal nazionalismoan beste herrialde batzuetako nazionalismo sezesionisten antzeko diskurtsoak erabiltzen dira, eta globalizazioan sortutako gainerako mugimenduen antzeko ezaugarriak hartzen dituzte.

Euskal nazionalismoan gertatutako aldaketa aztertzeko Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan kokatu den euskal nazionalismoaren diskurtsoaren bilakaeraren analisisia egingo dugu. Izan ere, ENAM izan da euskal nazionalismoan kokatzen den mugimendu garrantzitsuenetarikoa, eta haren nukleo egituratua Ezker Abertzaleak osatzen du. Sortu zenetik, ENAMek aldaketa nabarmena pairatu du bere diskurtsoetan, oso denbora gutxian gainera. Diskurtso horren bilakaera aztertzea adierazgarria da XXI. mendeko nazionalismo sezesionisten eta, bereziki, euskal nazionalismoaren nondik norakoak ulertzeko.

2. Gizarte-mugimendu modernoak

Gizarte-mugimenduen ikerketetako funtsezko galdera zera da: nola eragiten dute egiturazko aldaketek gatazka sozialetan? (Della Porta eta Diani, 2011: 26). Egiturazko aldaketetan, globalizazio-prozesua funtsezko gakoa da gizarte-mugimenduen eta nazionalismoaren inguruabarra ulertzeko.

Egiturazko aldaketek modernitateko gizarte-mugimenduen izaera aldatu egin dute, baita mugimendu nazionalistena ere. Ikuspegi historiko batetik abiatuta, P. Ibarrek (2005) hiru mugimendu mota ezberdintzen ditu maila teorikoan: gizarte-mugimendu zaharrak, gizarte-mugimendu berriak eta gizarte-mugimendu berri-berriak edo globalak.

Nazionalizazio- eta industrializazio-prozesuen ondoriozko egiturazko aldaketek gatazkaren formen aldaketa ekarri zuten Europako mendebaldean, lehenengo *gizarte-mugimendu moderno*en eraketa ekarriz (Tarrow, 2012: 136-160). Lipset eta Rokkanek (1967) gizarte industrialaren eta Estatu modernoaren nazionalizazio-prozesuetan egondako gatazka eta kontraesanak azpimarratzen dituzte mugimendu

politiko modernoak azaltzeko orduan. Inguruabar horretan sortzen dira langile-mugimendua eta nazionalismoa.

60ko hamarkadatik, gero eta konplexuagoa den gizarte baten ondorioz, *gizarte-mugimendu berrien* sorreraz hitz egiten da. Gizarte-mugimendu berrien eskaerak kultura, askatasun eta gai zehatzen inguruak ziren (Calle, 2005).

90eko hamarkadan, mundializazio-prozesuaren azkartzeak ekarritako arazoei erantzuteko protesta-boladak zirela-eta, zenbait autorek mobilizazio-ziklo berri bat zela baieztatu izan dute (Calle, 2005; Tarrow, 2012: 399). Globalizazioak eta neoliberalismoak paradigma estruktural berri bat ekarri zuten eta gizarte-mugimenduen eredu berri bat sortu: «*mugimendu global berriak*» (Calle, 2005).

Callek (2005) «*demokrazia erradikala*» jartzen du mugimendu global berrien diskurtsoen erreferentziazko ildo bezala. Diskurtso horren ezaugarri bereizgarrienak hauek izango lirake: horizontaltasuna, sentsibilitate handia nazioarteko botere berrien autoritarismoaren aurrean, parte hartzeko eta elkarrizketarako espazioen sorrera, bitarteko berrien bilaketaren garrantzia eta abar. Ildo horren ezaugarriak bereziki baliagarriak izango zaizkigu euskal nazionalismoaren diskurtsoak aztertzeko orduan.

Mugimendu global berriek gizarteko klase-banaketa eta gatazkaren analisia baztertu izan duten heinean, langile-mugimendutik urruntzen joan dira, oinarri ideologiko postmaterialistak beren gain hartuz (Inglehart, 1977). Gatazka sozialen irakurketa multidimentsionala erabili izan dute, «*demokrazia erradikala*» ardatz ezarriz (Calle, 2005). Horrekin, gizartearen klase-egituraketaren analisi materialista baztertzen duen diskurtsoa hegemoniko bilakatu da Europako ezkerren barruan, eta langile-subjektibitatearen pisua galdu egin da. Aurrerago aztertuko dugu nola eragin duen eredu honek ezkerreko euskal nazionalismoan.

3. Nazionalismoa, nazioa eta estatua

Estatua eta nazioa oso lotuta dauden kontzeptuak izan arren, modu bereizian ulertu behar ditugu. Gellnerrek (2009) nazioa nazionalismoaren sorkuntza bezala ulertzen du. Nazionalismoak kulturaren eta borondatearen osagaiak erabiltzen ditu bere burua justifikatzeko eta bere helburua, nazio-estatua, lortzeko. Nazionalismoa, Gellnerren hitzetan, «legezkotasun politikoaren teoria bat da, zeinaren arabera, muga etnikoek ez baitituzte gainditu behar muga politikoak, eta, bereziki, estatu bat dugularik, haren muga etnikoek, printzipioak bere formulazio orokorrean jada formalki baztertzen duen aukera, ez baitituzte banandu behar agintedunak gainerakoetatik» (Gellner, 2009: 7). Horren arabera, zenbait nazionalismo mota etniaren edo nazioaren eta estatuaren mugek bat egiten ahalegintzen dira, estatuaren nazionalizazio-prozesuari ekinez edo nazioari egokituko zaion estatu-egitura eratuz edo eskatuz.

Mugimendu politikoa izanik, nazionalismoak ez du zertan egia zientifikorik zabaldu, «historian zehar herriaren batasuna erakutsi ahal izan duten ekimen

kolektiboak aurkeztu baizik» (Zabalo, 2000: 29). «Nazioa existituko da baldin eta bere naziokideek sinesmen egokiak badituzte; ez da sartzen definizioan sinesmen horiek benetan egiak diren edo ez» (Miller, 1988: 649).

Nazionalismoak behin estatu modernoak eratuta gorpuztu dira, estatu barneko komunitate ezberdinak nazio bakarrera eramateko helburuarekin. Estatu modernoak errege absolutuekin eraten joan ziren. Ondoren, Frantziako Iraultzatik aurrera, estatuak nazionalizatzeari ekin zioten. Nazionalizazio arrotzari erantzuteko, estatuaren nazioarekin identifikatzen ez diren nazioak aldarrikatu dira, nazio-estatu propioa eraikitzeko ahaleginarekin. Ezin da «nazio» kontzeptuaren sorrera ulertu «estatu» kontuan hartu gabe. Bi kontzeptuen arteko harremanaren arabera, nazionalismo ezberdinak egon dira. Alde batetik, beren muge barruan nazio bakarraren ideia zabaldu nahi izan duten estatuen nazionalismoa, eta, beste aldetik, estatu nahi duten nazioen nazionalismoa. Horren ondorioz, nazionalismo zentripetoen eta periferikoen edo sezesionisten arteko gatazkek gertatzen dira. Bistan da euskal nazionalismoa bigarren multzoan kokatzen dela.

P. Ibarra eta F. Letamendiaren (1999: 374) arabera, estatuaren nazionalizazio-prozesuaren ondorioz historikoki sortutako zentroaren eta periferiaren arteko gatazkek hiru adierazpen mota izan dituzte:

- Legitimista-erreakzionarioa, jakobiten eta karlisten altxamenduekin esaterako gertatzen dena. Erantzun hauek gatazka nazionalizat hartu ezin daitezkeen arren, estatuen zentralizazioaren aurrean sortzen diren erantzun tradizionalistak dira. Hala ere, karlismoak euskal nazionalismo burgesa sortzeko lehenengo oinarriak ezarri zituen (Beltza, 1978).
- Nazionalismo populista. Honek nazionalismo estatalaren tresna berdinak erabiltzen ditu, zentroaren nazionalizazioari aurre egiteko. Eusko Alderdi Jeltzalea honen adibidea litzateke.
- Nazionalitario-progresistak, 60ko eta 70eko hamarkadetakoak. Nazionalismo hauek faxismoak ekarritako nazionalismo arrazistaren kontrako jarrera hartzen dute, eta deskolonizazio-prozesuen garaian sortzen dira.

Gure hipotesiaren arabera, globalizazioaren aroan indartutako nazionalismo periferikoek laugarren tipologia bat osatuko lukete, «demokrazia erradikal»aren defentsa egingo lukeena. J. Zabalo eta O. Odriozolaren (2017: 76-77) arabera, euskal nazionalismoaren diskurtso berriak «demokrazia kontzeptua du ardatz, eta herritarren borondatea eta erabakitze ahalmena aldarrikatzen ditu».

4. Globalizazioa eta nazio-estatu

Globalizazioa Estatu Batuen eta Europako mendebaldearen mundu-mailako hegemonia mantendu eta bermatzeko bultzatu den prozesua izan da, oligarkia finantzarioaren mesedetan batez ere. Hala ere, gaur prozesu horren jarraitutasuna zalantzan dago. Hain zuzen ere, orain dela gutxira arte indarrean egon diren prozesu integratzaileak —TIPPa esaterako— gelditzeko neurriek oztopatu egin dute merkatu

eta finantza-arloko globalizazioa, eta nazioarteko herrialdeen egituraketa aldaketa sakonak pairatzen ari da.

Globalizazioa, bloke sozialistaren gainbeheraren ondoren, prozesu transnazionalen testuinguruan kokatzen den fenomeno tekniko, politiko, ekonomiko eta kulturala da, non Estatuak berebiziko papera jokutzen duen (Hirsch, 1997). Haren ezaugarri nagusiak hurrengoak dira: Estatu Batuen mundu-mailako hegemonia, printzipio liberal-demokratikoen «unibertsalizazioa», kontsumo-eredu kapitalistaren generalizazioa, komunikazio-teknologiaren garapena, merkataritza-fluxuen liberazioa (potentzien interesen mesedetan) eta abar. Globalizazioa merkatuaren hedapenerako prozesua da, kulturalki ere herritartasun berri batekin datorrena. Kapitalismoaren hedapen-ziklo baten adierazpena da, mundu-mailako ekoizpen modu eta prozesu zibilizatuak modura.

Globalizazioa, oro har, kapitalismoaren mundializazioaren bizkortze-fasearekin gertatzen da, Sobietar Batasunaren gainbeherarekin datorrena. Baina azken hamarkadan, potentzia berrien susperraldiarekin, prozesu horrek norabide-aldaketa jasan du, munduaren unipolaritasunetik, multipolaritasunera pasatuz.

Bestalde, globalizazioak arazo berriak ekarri ditu zenbait estaturen nazionalizazio-prozesuetan, nazionalismo periferikoak berpiztu diren heinean. Erakunde transnazionalen eraketarekin, estatuak lurraldearekiko autoritate eskusiboa galdu egin du (Sassen, 2007: 24). Erabakiguneak «transnacionalizatu» egiten diren heinean, estatuaren nazionalizazioa ahuldu edo eten egin da.

Eskumenen transferentzia estatuz gaindiko organoetara joateaz gain, eskumen asko administrazio erregionaletara transferitzen dira ere (Santamaría, 2001: 176). Izan ere, bigarren mailako legebiltzarrek erabaki-gaitasun eta eskumen gero eta gehiago hartzen dituzte (Juaristi, 2001: 74-75). Ondorioz, estatuak lurraldearen kontrol administratiborako gaitasuna galdu dute (Guibernau, 2008: 19), nazio-nortasun sentimendu komun bat zabaltzeko zailtasunak ekarriz estatuentzat (Guibernau, 2008: 45). Estatuarekiko identifikazio kolektiboa galtzen doa eta, globalizazioak dakarren asimilazio kulturalaren aurrean, jendeak identitate lokalagoetara jo du, komunitate lokalak indartuz. Bestalde, kultura lokalen berrindartzearekin batera, komunitate global berriak ere sortu dira (Rosas, 1993).

Izan ere, globalizazioa eta lokalizazioa batera doazen bi prozesu dira (Zabalo, 2000: 87). Globalaren eta lokalaren arteko tentsio horren ardatzean kokatzen dira nazionalismo periferiko berriak (Letamendia, 2013: 308), mugimendu global berrien kasuan bezala.

D. Bellen esanetan, «Nazio-estatua txikiegia da arazo handiak konpontzeko eta handiegia arazo txikiak konpontzeko» (Barcena eta Larrinaga, 2004: 227). Nazio-estaturen krisiaren ondorioz, mugimendu nazionalisten berpizkundea gertatzen ari da, subiranotasunaren printzipioan eta herriaren demokrazian oinarrituta (Guibernau, 2008: 37).

5. Euskal nazionalismoa

5.1. Euskal nazionalismoa, ETAREN sorrera eta ENAMEN egituraketa

Euskal nazionalismoaren ibilbide historikoan, hiru fase bereizten dira batez ere, aurretik P. Ibarrek eta F. Letamendiak aipatutako hiru faseekin bat datozenak: karlismo edo foruzaletasunarena —euskal nazionalismoaren lehen hastapen modura—, jeltzaletasunarena eta Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduenarena (Euskadi Ta Askatasuna eta Ezker Abertzalearen inguruan egituratzen dena). Lan honen hipotesiari helduta, tipologia berri baten aurrean geundeke orain, XXI. mendeko testuinguruari egokituta, eta testuinguru globalean sortutako mugimenduen antzeko ezaugarriak hartzen dituena.

Karlismoa ez dugu euskal nazionalismoan kokatuko. Izan ere, euskal nazio-gatazkaren hastapenaren ezinbesteko elementua bada ere, ez dugu mugimendu nazionalistatzat jotzen.

Eusko Alderdi Jeltzalea eta ENAM —edo Ezker Abertzalea— dira gaur egun euskal nazionalismoan kokatzen diren bi eremuak, oso ikuspegi ezberdin eta, kasu askotan, antagonikoekin. Gure kasuan, ENAMen diskurtsoaren azterketan zentratu gara.

ENAM edo Ezker Abertzalearen eremu soziopolitikoaren hastapenak ezagutzeko, 50eko hamarkadara jo behar dugu, Ekin eta Euskadi Ta Askatasunaren sorrerara hain zuten. 1951-1952 urteen bitartean, ikasle talde batek Ekin izeneko taldea eratu zuen Euskal Herriaren inguruko ikasketa eta formakuntza politikoa sustatzeko nahiarekin. EAJren gazte-adarrean sartzeko ahaleginak egin ostean, Euskadi Ta Askatasuna sortzea erabaki zuten. EAJrengandik banatzeko erabakia talde horrek zeukan frankismoaren kontrako ekintzarako premiak eta izaera akonfesionalak eragin zuen. Gainera, euskal nazioaren oinarrizko elementua hizkuntza bihurtu zen, aurretik arrazak zuen garrantzia alboratuz (Zabalo, Odriozola, 2017). Ekintza-errepertorioaren aldetik, taldeak bitarteko guztiak erabiltzeko aukera ikusten zuten.

1967an, V. Batzarrean ETAk bere burua Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista bezala definitu zuen, nazionalismoa eta sozialismoa batera uztartuz, eta ideologia marxista bereganatuz. «Euskal Langile Herria» subjektu iraultzailea orduan finkatu zen. Bestalde, F. Krutwig-ek formulatutako «nazionalismo iraultzaile» kontzeptua batzar horretan bereganatu zen (Apaolaza, 2012).

1975ean, Herriko Alderdi Sozialistak, Eusko Alderdi Sozialistak, ETApM-k, ETAm-k, Eusko Langile Indarrak eta Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdiak komunikatu batean Koordinadora Abertzale Sozialista eratu zuten (Laurenzano, 2000: 64), eta trantsizio demokratikoa gauzatzeko gutxieneko baldintzak definitzeari ekin zioten. KASEk ENAMen zuzendaritza-blokea osatzen zuten.

1976an, behin Franco hilda, Erreforma Politikorako Legea onartu zenean, ETA militarren inguruko talde politikoek (Euskal Herriko Alderdi Sozialista, Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea eta LAIA), Eusko Sozialista Biltzarra eta Eusko

Abertzale Ekintzako sektoreekin batera, Herri Batasuna eratu zuten eta «KAS Alternatibak» osatzen zuen haren programaren oinarria (de Pablo, de la Granja eta Mees, 1998: 18). Dena den, Herri Batasunak 90eko hamarkadan hartuko zuen benetako pisua, Urrats Berri prozesuarekin.

Erregimen-aldaketarekin, matxinadazko estrategia batetik negoziazio-estrategia batera pasatu ziren (Sortu, 2013: 56). KAS Alternatibak bildutako bost puntuak ziren jarduera armatuaren etena negoziatzeko oinarrizko baldintza politikoak. EAJrekin kontrajarriz, ETA, KAS eta HBren eremu soziopolitikoak —Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua— haustura eta KAS Alternatibaren aldeko apustu irmoa egin zuen, Gernikako Estatututik kanpo mantenduz.

1980ko hamarkadan zehar KAS eta ENAMen egituraketa aldatu egin zen, zenbait talde KASetik irteteak eraginda. Hamarkada horretan KAS blokeak honako antolakunde hauek barnebiltzen zituen, ETA abangoardiaren zuzendaritzapean: HASI alderdia, ASK herri-koordinadora, LAB sindikatua, Jarrai gazte-antolakundea eta Egizan erakunde feminista. Horiek ziren Ezker Abertzalearen nukleo egituratua osatzen zuten talde edota antolakundeak. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak Ezker Abertzalea eta haren inguruan kokatzen ziren kolektiboak barnebiltzen zituen.

Zentzu horretan, Ezker Abertzalea ENAM barneko nukleorik egituratuena izango litzateke, nahiz eta talde asko kontsideratu izan diren ENAMen parte. Vilaregut eta Gómezek (2014) hiru maila bereizten dituzte ENAMen barruan:

- KAS, euskal iraultzaren zuzendaritza-blokea.
- Herri Batasuna ENAMen adierazpen elektorala.
- Herri Mugimendua, Ezker Abertzalearen adierazpen sozial, politiko eta kulturalak biltzen zituena.

Eredu hori asko aldatu da ordutik hona. 1992an HASI disolbatu egin zen (La Vanguardia, 1992). Aldi berean, Herri Batasunak pisua hartu zuen Ezker Abertzalearen zuzendaritza politikoan. 1998an KAS koordinadora ilegalizatu zuten, 1999an eratutako Ekinek hartu zuen Ezker Abertzalearen koordinaziorako funtzioa.

1995ean, KAS Alternatibaren ordeztu, «Alternatiba Demokratikoan» finkatzen ziren negoziaketetarako jarraibideak. Fase berri horretan, bi negoziazio-ardatz planteatzen ziren: ETAREN eta Espainiako Estatuaren artekoa, gatazkaren ondorio teknikoek hitz egiteko, eta bestea, Euskal Herriko eragile politiko, sozial eta sindikalen artekoa, beste marko demokratiko baterako trantsizio politikoa diseinatzeko (Saratxo eta Zabalo, 2013).

2000tik aurrera, Batasuna prozesuaren bidez alderdi egituratu berri bat eratzeko ahalegina egin zen, baina ilegalizazioak zirela medio, saiakera hori zapuztuta gelditu zen.

2010eko otsailean Ezker Abertzaleak *Zutik Euskal Herria* dokumentua aurkeztu zuen, ildo estrategiko berria azaltzeko. Bertan, bide baketsu eta demokratikoetatik soilik jarduteko borondatea azaldu zen, eta indar-metaketa hartzen zuen oinarrizko

ildotzat (Ezker Abertzalea, 2010). Urte berean zenbait eragile politiko eta sozialek (Ezker Abertzalea barne) Gernikako akordioa sinatu zuten, non ETARI eta Gobernuari zuzentzen zitzaizkien, batari armak uztea eta, besteari, Alderdien Legea eta lege antiterrorista indargabetzea eskatzen zitzaien (Cirulli, 2012: 143-144). 2011ko urtarrilean ETAK «su eten orokor eta egiaztatgarria» adierazi zuen.

Ordutik Ezker Abertzalearen estrategia indar-metaketan oinarritzen da, «polo soberanista»-ren eraketaren helburuarekin.

Gaur egungo ENAM eta Ezker Abertzalearen egituraketari dagokionez, Abian prozesuan zehaztu zen bezala, Ezker Abertzale «ofiziala» Sortuk, LABek eta Ernaik osatzen dute, baina horren inguruan kokatzen den mugimendua zabalagoa da.

5.2. ENAMen mugimendu-izaera

Frankismoaz geroztik, euskal nazionalismoko bi familia nagusiek —EAJ eta ENAM— harreman kontrajarriak mantendu dituzte beren artean. Harreman gatazkatsu horien elementu garrantzitsu bat praxi politikoan datza.

Frankismoaz geroztik, EAJk Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-erakundeek kudeaketa lehenetsi du eta bere jardura politikoan ez ditu inoiz legalitatearen mugak gainditu. ENAMek, ordea, maila guztietako borroka moldeak onartu eta erabili izan ditu —konbentzionalak, ez-konbentzionalak, ilegalak eta bortxazkoak— bere jardura politikoan. Are eta gehiago, hasiera-hasieratik ukatu egin du 1978ko Espainiako Konstituzioak eskainitako marko legala. Izaera horren adierazgarri da ENAMen parte izan diren zenbait antolakunderen izaera ilegala eta klandestino, horien artean mugimendu horren abangoardia eta erreferente sinboliko bezala jardun duen ETA erakunde armatua. ENAM esparru sozial eta politiko guztietan jardun duen mugimendu politiko eta soziala izan da, EAJren jardura gobernu-erakundeek kudeaketara bideratu den bitartean.

Oro har, EAJ euskal nazionalismo burgesaren adierazpentzat jo da eta ENAM —edo Ezker Abertzalea edo ETA bera— ezkerreko euskal nazionalismoarena.

Mugimendu-izaera horrek ezaugarri aldakor eta dinamikoagoak ematen dizkio ezkerreko euskal nazionalismoari. EAJren jardura, ordea, gobernu-erakundeek kudeaketan tematuta egon den heinean, izaera estatikoagoa eskuratu du eta mugimendu politiko bat ezaugarritzen duten elementuak galdu egin ditu, gobernu-erakundeek «kudeaketa egokian» tematuta egon den heinean.

F.J. Llera-k (1984: 1), Ezker Abertzaleari buruz ari dela, zera dio: «Es difícil aplicar a este espacio público el paradigma formal de los partidos políticos, porque se caracteriza más por ser un movimiento social».

Beraz, ENAM inguruko euskal nazionalismoak mugimendu-izaera hartzen du, mugimendu zahar eta berrien arteko tentsioaren sintesi modura: antolakuntza-eredu berriak bereganatuz, nahiz eta praktika hierarkikoak gauzatu, ikuspegi marxista klasikoa diskurtso eta balio berriekin batera jorratuz, nazio-eraikuntza izaera anti-

sistemiko batekin batuz, borroka instituzionala eta ordena konstituzionalaren kontrako bortxa erabiliz eta abar (Zubiaga, 2014).

5.3. «Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua»z aritzeko zailtasunak gaur egun

Azken hamarkadako estrategia-aldaketa dela-eta, ENAM eta Ezker Abertzalea asko aldatu dira. Iritzi kontrajarriak egon daitezkeen arren, izaera anti-sistemiko eta mugimendu-izaera lausotzen ari dela baieztatu daiteke, hein handi batean Ezker Abertzaleak borroka instituzionalari ematen dion garrantziagatik. Izan ere, Ezker Abertzaleak gero eta egituraketa-praxi konbentzionalagoak hartu ditu. Horrek «ENAM» bezala ezagutzen zena gaur egun definitu eta mugatzeko arazoak dakartzkigu, termino hori gaur egun jada (ia) erabiltzen ez delarik.

Gainera ENAM delako hori gaur egun osatzen duten talde eta antolakundeak kohesioa galtzen joan dira eta gero eta zailagoa da mugimendu unitario eta bateratutzat hartzea. Esaterako, «Amnistia Ta Askatasuna» eta «Herritarren Batasuna» bezalako zenbait talde Ezker Abertzalearen ildo ofizialetik urrundu dira. Horrek zailtasunak dakartza Sorturen dokumentuetako ildoak «ENAM osoari» egozteko.

Bestalde, «Ezker Abertzalea» eta «ENAM» kontzeptuak sarritan nahastuta agertzen dira, zaila da bien kontzeptuen arteko muga edo definizio zehatzak identifikatu eta markatzea. Kasu honetan, ENAM terminoa erabili dugu gure ikerketaren objektuari erreferentzia egiteko, euskal nazionalismoaren eremu zabal bati erreferentzia egiten diolako eta euskal nazionalismoaren mugimendu-izaerarekin hobeto lotzen delako. Egia da erabilitako dokumentuak Ezker Abertzaleko antolakundeek argitaratutakoak direla, baina bertan ezarritako ildoek ENAM osoan eragin izan dute.

6. ENAMen diskurtsoaren analisia

Globalizazioak Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren diskurtsoan aldaketa eragin duela baieztatzeko diskurtso nagusiak azaltzen diren laginak aztertu dira. Alegia, ENAMen, 1980tik hona, hamarkadaz hamarkada, ponentzia edo txosten esanguratsuen analisia gauzatu dugu. 1980ko hamarkada hartu dugu azterketaren abiapuntu, ENAM barneko kohesio eta egituraketa nahiko egonkorra lortu zelako eta Sobietar Batasunaren gainbeheraren aurreko garaia delako. Izan ere, 1970eko hamarkadaren azterketa oso nahasia litzateke, ENAM edo Ezker Abertzalean kokatzen diren alderdi, erakunde eta kolektiboen aniztasunagatik. Hori dela-eta, zailtasunak agertuko lirateke garai horretako diskurtsoaren ildo nagusiak bilduko dituen lagina aukeratzeko orduan.

1980ko hamarkadan ENAMen eta KASen ildoen zuzendaritza, ETAz gain, Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailearen esku zeuden. Hori dela-eta, haren II. Biltzarrean aurkeztutako txostenen azterketa egingo dugu.

1990eko hamarkada aztertzeko, Urrats Berri prozesuaren ondoren aurkeztutako txostenak erabiliko ditugu. Prozesu hori Herri Batasunak bultzatu zuen, zenbait alderdiren koalizioa alegia, eta 1990eko hamarkadako ildo politikoak nabarmenki determinatu zituen.

2000. urteko hamarkadan, «Euskal Herriko ezkertiarren batasuna» prozesua —edo Batasuna prozesua— daukagu, izen bereko erakunde berri bati jaiotza emango ziona. Prozesu horretan zenbait txosten aurkeztu zirenez, prozesuan garaile irten zena izan da erabilitakoa, *Bat Eginez* txostena alegia.

2010eko hamarkadarako, Ezker Abertzaleak Sortu alderdiaren eratze-prozesuaren ondorioz ebatzitako «Sortu ponentzia»ren analisisa egin da.

6.1. 1980ko hamarkada: Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea, II. Biltzarra

1980ko hamarkadako diskurtsoaren analisirako, HASIk 1983ko II. Biltzarrean onartutako txostenak erabiliko dira. Txosten horiek dokumentu berean argitaratu ziren *H.A.S.I.. II. Biltzarrea. Independentzia eta sozialismoaren bidean. Desarrollar el partido, fortalecer el bloque KAS, avanzar con la unidad popular HB* izenburuarekin.

Dokumentu horien irakurketaren bitartez, garaian mundu-mailan sumatzen zen tentsio sozial eta geopolitikoaren berri izan dezakegu. Momentu hartako fase historikoa «sistema kapitalistarekiko haustura fase»tzat jotzen da (HASI, 1983: 69). Sozialismoa aurrerapausoak ematen ari da, eta «klase-borroka» da «trantsizio honetako elementu-giltzarri» eta «langile-klasea da iragapen honetan interesatuenik dagokeen indar soziala» (HASI, 1983: 70). Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua, beraz, langile-klasearen borrokan kokatzen da. Baina klase-borroka «baldintzarik ezberdinen eta desberdinetan gertatzen» da. Izan ere, Munduko Prozesu Iraultzailearen barruan hiru korronte ezberdintzen dira: lehenengoa, «Sozialismoa: iadanik sozialismoaren eraikuntza egitzako errealitate den Estatuak biltzen dituen», «kapitalismo aurreratuko Estatueta eta berauen ingurugiroan desaroilatzen diren korronteak» eta «Estatu menpeko eta neokolonizatueta nazio-askapenerako mugimenduak» (HASI, 1983: 70). Klase-gatazka mundu-mailan gertatzen da, eta inperialismoaren kontrako borrokak —borroka nazionalak— klase-borrokaren forma hartzen du.

«Inperialismo» hitzak mundu-mailako dominazio-egoera deskribatzen du. HASIk bere Lehen Biltzarrean ezarritako definizioa, hots, «Estatu ekonomikoki pribilegiatuek Herriak dominazio politiko bidez eta/edo produkzio merkatu berriak konkistatzeko joera expansionista da inperialismoa» berresten du (HASI, 1983: 70). Bestalde, kapitalismoaren krisi-egoera dela-eta, inperialismoaren «ahalegin guztiak [...] edozein motatako transformazio iraultzaile oro galgatzera, frenatzera lerratzen» dira (HASI, 1983: 72).

Posizionamendu erabat antagonikoa deklaritzen da kapitalismo inperialistarekiko. «Gizarte sozialista bakarrik, Herri langilearen produkzioko eta jabetzako sisteman, [...], zuzen den gizartean bakarrik da posible bakea. [...] bakearen aldeko gure borroka, inolako dudarik gabe, gure Askapen Nazional eta Sozialaren aldeko

borrokatik iragaten da, Inperialismoaren aurkako gure borroka amorratutik» (HASI, 1983: 121). Horretarako bortxa beharrezko tresna da: «Oldarpen zuzen-zuzenez bakarrik borrokatzen da, [...] bortxa iraultzaileaz bakarrik» (HASI, 1983: 121).

Joera inperialistaren eta krisiaren aurrean, «Munduko lehen Estatu sozialistaren, Errepublikak Sozialista Sobietarren Batasunaren sortzea, kolonia-sistema politikoki ezabatzea eta Herri askatu berriak agertzean nazio-askapenerako iraultzak, [...] Herri berrien Sozialismo-alderako joera eta abar» agertzen dira. Gainera, «kapitalismoaren azken fasea legez, eta dagoeneko behin betirako frakasura eta desagertze osora bideratuta aurkitzen» da (HASI, 1983: 72). «Langile-mugimendua berriro goraka doa [...] eta kapitalismoaren krisiaren azkenaldi honetan abantailak lortzeko egoera egokian aurkitzen da» (HASI, 1983: 78). Irakurketa horrek garai horretako optimismo iraultzailearen berri ematen digu, baina baita mundu- eta gizarte-mailako tentsioaren berri ere. Gainera klase-gatazka mundu-mailako banaketa eta tentsio geopolitikoan islatzen da.

Estatu aurreratuetako herri zapalduen paperari garrantzi berezia eskaintzen zaio. «Borroka hauek azeleratzea Munduko Prozesu Iraultzaileko lorpen positiboak, inperialismoa bere esparruan menderatzeko ekarpen bazterrezinak bilakatzen dira» (HASI, 1983: 80). Hori da, beraz, ENAMen funtzioa Munduko Prozesu Iraultzailearen barruan. Herri zapalduetako «langile-klasea agertzen da indar sozialik konziente eta aktiboena» bezala (HASI, 1983: 81). Norabide horretan, KAS Alternatibak «inperialismoaren kateari ahalik eta gutxien makurtzen zaion ekonomia eskatzen du. [...] Noski Euskal Herri Langilearen bizitza maila hobetzea garantizatzeko bide bakarra kapitalista erregimenaren suntsitzea besterik ez da. Baina sozialismora iritsi aurretik ere langileen gero eta miseri haundigoari amaiera ematerik badago» (HASI, 1983: 40).

Nazioartea egoera ezegonkor batean dago. HASIrentzat Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak «Munduko Prozesu Iraultzaile»aren alde eta inperialismoaren kontra borrokatzen du: «Euskadin gaur egun desarroitzen ari den nazio-askapenerako borroka mundu osoan libratzen ari den klase-borroka zatiezinararen atal dela baieztatu dezakegu; eta [...] Munduko Prozesu Iraultzailearen parte dela» (HASI, 1983: 124). Prozesu iraultzaile partikular guztien arteko lotura baieztatzen da «Sobietar Batasunik gabe, ezinezkoa zatekeen Cuba sozialista bat, edota Vietnamik gabe Herri sozialisten finkapena eskasagoa zatekeen» (HASI, 1983: 119). Borroka guztiak marko mundial batean kokatzen dira.

Nazioaren ikuspegi kulturalari lotuta, badago aipamen bat inperialismoak nazio-nortasunarentzat dakarren mehatxuaren inguruan, baina betiere, kapitalismo inperialistaren asmoei lotuta agertzen da: «Kapital-lana kontraizan nagusia Subirania Nazionalaren eta Kapitalismoa Inperialistaren arteko borrokan konkretatzen da. Projektu honek sozialdemokrazia agintean eta gobernuan egotea eztabaidagarri bihurtzen duenez, honen soluziobidea herriaren subirani nahiak ahultzea da, eta horretarako nazio-nortasunaren ezaugarriak hankapean xehetzeko beldurrik gabe jokatu du» (HASI, 1983: 40). Espainiako Estatuan klase-gatazkak nazio-gatazkaren forma hartzen du. Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da «gure nortasunaren ezaugarriak, eta bereziki euskara, indartzeko eta zabaltzeko

ahalegina» eta «autodeterminazio eskubidea exerzitzatu ahal izateak duen izaera demokratikoa azpimarratzea» (HASI, 1983: 40). Hamarkada honetan gatazka oro klase-gatazkaren bitartez azaltzen baita.

Hamarkada honetan ENAMek diskurtso materialista erabiltzen du bete-betean, klase-gatazkan kokatua, eta borroka sektorialak betiere klase-gatazkaren bitartez interpretatzen dira. «Inperialismoa», «klase gatazka» eta «Munduko Prozesu Iraultzailea» txosten hauetan indar berezia duten terminoak dira.

Elkartasun internazionalista «Munduko Prozesu Iraultzailean» kokatzen diren herri guztiekin adierazten da. Jarduera gehiena elkartasuna adieraztera bideratzen da, eta alderdi aurrerakoiekin harremanak sendotzea bilatzen da: «Nazioartemailako gure aliantza-politika zehazterakoan, estrategi mailako gure presupostuak finkatu behar ditugu; [...] dagoeneko ba ditugun harremanak eta zabaldu egin behar ditugunak [...] gure helburu ideologiko eta politiko nagusiek baldintzapetuak bait daude. Helburu hauek Munduko Prozesu Iraultzailearen helburu estrategikoen atal dira» (HASI, 1983: 126).

Autokritika modura, HASIk aitortzen du nazioartean ez duela behar beste jardun: «[...] Espainiako Estatuan eraiki Erreformaren proiektuari oldartu beharrez, gure ahalegin nagusiak proiektu honi erantzun zuzena ematen zentratu ziren. [...] Haatik, nazioarteko harremanak landu beharra eta alderdi osoak era horretako eginkizunak bultzatzeko duen jarrera dudaezina da» (HASI, 1983: 132).

Mugimendu global berriak bloke sozialistaren gainbeherarekin eta neoliberalismoaren agerpenarekin eratu ziren, beraz garai horretan, ENAMek eta mugimendu global berriek ez dute zertan elementu komunik izan. Hala ere, geroago loratutako ezaugarriak edo problematikak aurki ditzakegu.

Marko teorikoan aipatutako «*global governance*» delakoa ez da oraindik eratu. Estatuak jarraitzen du ekintza politikoaren hartzaille nagusia izaten, nahiz eta inperialismoaren interesak egon horren atzean. Nazioarteko egoerak pisu handia baitu Euskal Herriko egoera azaltzeko orduan, baina ekintza politikoa estatuaren mugen barruan gauzatzen da. Harreman eta elkartasun internazionalista aurrera eramateko sareen egituraketa planteatzen da, baina zailtasunak aipatzen dira.

Gutxi dira nazioartean modu bateratuan egiten diren dinamikak, ondorengo hamarkadetan mugimendu global berrien «mobilizazio transnazionalak» hartuko duten garrantziarekin alderatuz (Tarrow, 2012). Inperialismoaren kontrako borroka estatuko klase zapaltzailearen kontra gauzatzen da, Estatuaren markoaren barruan.

Callek planteatutako «*demokrazia erradikal*»aren erreferentzialtasuna (2005: 26) ez da oraindik nabarmena. «Demokrazia» kontzeptuak badauka bere presentzia erregimen frankistarekiko «haustura demokratiko»aren ideiarekin lotuta, baina ez du hurrengo hamarkadetan eskuratuko duen pisua.

6.2. 1990eko hamarkada: Urrats Berri prozesua

1990eko hamarkadako diskurtsoa aztertzeo, Urrats Berri prozesutik ateratako txostenak aztertu ditugu (Herri Batasuna, 1991, 1992). Prozesu hori Herri Batasuna koalizioak bultzatuta burutu zen. Barrura begira, hausnarketa bultzatzeaz gain, «Batasun Herritarraren proiektu politikoa doitasun handiagoz» definitzeko asmoarekin egin zen. Kanpora begira, Herri Batasunaren «filosofia partehartzailearen islada» izan nahi zuen (Herri Batasuna, 1991).

Prozesu horretan, Herri Batasunaren proiektuaren teorizazioan aurrerapausoak eman ziren. «En *Urrats Berri* se concretó más que nunca el proyecto del modelo social abertzale y de izquierdas desde la perspectiva de la unidad popular y, lo que es más importante, eso se realizó tras incorporar infinidad de aportaciones realizadas por la militancia»¹ (Aginako, 1999). Hamarkada honetan, Herri Batasunak pisu handiagoa hartuko du ENAM eta Ezker Abertzalearen egituraketaren barruan. Bestalde, 1992an HASI disolbatu egiten da (*La Vanguardia*, 1992).

Urrats Berri prozesuan lau txosten banatu ziren, baina behin betiko dokumentuen azaleko orrialdean, zera jartzen du: «Oharra: soilik 2., 3. eta 4. txostenak zuzendu ziren, lehena koiuntura azterketa izaki, eztabaida hasiz geroztik amaierarako egoeran izandako aldaketak jasotzea ez zuelako merezi». Hortaz, egoera politikoaren azterketaren 1991ko oinarritzko txostena erabili da.

Bloke sozialistaren gainbeherak eragin handia du Urrats Berri prozesuan egiten den nazioarteko egoeraren azterketan. Sozialismo erreala deiturikoa porrota izan dela onartzen da, eta zenbait arazo identifikatzen dira gainbehera hori azaltzeko, baina «benetako sozialismo deiturikoaren porrotak ez du esan nahi sozialismoa garaitua izan denik. [...] Agerian jartzen digu ezinezko dela libertaterik gabeko baldintzetan eta burokrata-sail baten eskutan dagoen produkzio-sistema batekin, eta gizarte-gehiengoaren kontrolik gabe» (Herri Batasuna, 1991: 1). Hori dela-eta, Herri Batasunaren izaera demokratikoa behin eta berriro azpimarratzen da, gainbehera horrekin ez identifikatzeko, betiere izaera antikapitalista berretsiz. «Gizartearen gehiengoak beregain kontzienteki harturiko ihardunbidea izan behar du demokrazia formala eta parteharbidetzkoa» (Herri Batasuna, 1991: 1). Ekonomia-mailan, «“pobreziatzko berdintasunaren” ordeztatu “aberastasunaren banaketaren alde”» jokatu behar dela pentsatzen da «ekonomia planifikatuaren eta merkatuaren mekanismoak elkarbateratuz» (Herri Batasuna, 1991: 1).

Nabaria da bloke sozialistaren gainbeherak norabide-aldaketa ekarri duela ENAMera. Izan ere, Sobietar Batasunaren esperientzia kritikatu izatera pasatzen da. ENAMek berregituratzen ari den ezkerren baitan kokatzen du bere burua.

«Ezker berriaren atarian» kokatzen da garai berria, «sozialismo errealetik» zein Mendebaldeko sistemaren barneko sasi-ezkerretik desmarkatua izango dena, eta nazioetatik egiten diren ekarpenak bere gain hartuko dituen (Herri Batasuna, 1991: 1). «Izan ere, Herri Batasunarentzat sozialismoa erabat demokratikoa izango da

1. Iñaki O'Sheari eginiko elkarrizketa. Bilbon, 1998ko uztailaren 1ean.

ala ez da sozialismoa izango» (Herri Batasuna, 1992: II. Txostena, III. Kapitulua). Baina sozialdemokrazia ez da bidea: «Sozialdemokraziak ez du berdintasun eta justiziazko sistemarik ezarri nahi. [...] Aldakuntzarako eredu gisa, sozialdemokraziak porrot egin du».

Bestalde, aukera politikoak ikusten dira autodeterminazio-eskubidearen aitortzarako, «Europar historikoki menpekotasunean bizi izan diren herrien emantzipazio-prozesua ahalbideratzen duen kojuntura internazionalagatik». Izan ere, bloke sozialistaren gainbeherarekin, zenbait estatu berri sortzen ari ziren Europako ekialdean. Gainera nazio-estatuaren eredia krisian sartzen ari den susmoa dago: «Estatu-nazio tradizionalak hainbat ikuspegitan sakonki zalantzan jarriak daude» (Herri Batasuna, 1991: 2). Argi dago autodeterminazio-eskubidea ez zaiela herri guztiei egoera berdinean emango: «Dinamika independentzizale hau galgatu nahian ihardutea, batzuren ezinbestean onartuz, beste batzuri eskubide berbera ukatuz eta etsaitzat Estaturik gabeko nazioak hartuz» (Herri Batasuna, 1991: 2). Dinamika horrek, bloke sozialista ahultzeko sortua, arrisku bat dakar Mendebaldeko potentzientzat. Horren aurrean, HBren jarrera zera da: «Zapaldutako nazioek autodeterminazio eta independentziarako dute eskubidea baldintzarik gabe sostengatzea, [...] haien ezkerreko edo eskuineko ustezko orientazioei baldintzapetu gabe» (Herri Batasuna, 1991: 2-3). Horrekin askapen nazionalaren aldeko jarrera posizionamendu ideologikotik banandu egiten da.

Europar integraziorako prozesuarekin kontrako jarrera ageri da: «EEEen integrazioak, oso eragin negatiboa izan du eta dauka oraindik ere gure sektore ekonomiko guztietan [...] Honek frogatzen du Euskal Herria eraisteko beren estrategiak aurrera segitzen duela eta geroz eta nabariagoa dela» (Herri Batasuna, 1991: 29-30). Europako prozesu integratzaileari egozten zaio garaiko ekonomiaren egoera txarra, eta Euskal Herriaren kalterako bideratuta dagoen prozesutzat hartzen da.

Arlo kulturalen, III. Txosteneko «Ideien gatazka gure gizartean» azpiatalean, ordena berriak eragiten duen aldaketa kulturalaren analisia egiten da: «Mendebaldeko mundu honek espazio kultural-ideologiko bat osatzen du, [...] eta bere burua zabaltzera, unibertsal bilakatzen eta kultura nazionalen gainetik jartzera jotzen ari da [...]. Mendebaldetarrak izateak konpetitibitateko, kontsumismo ideologiko-kulturaleko, familia patriarkaleko, indibidualkeria zekeneko kulturaren kokatzen gaitu». Euskal izaera mantentzea, prozesu horren kontrako erresistentzia-logikan kokatzen da euskal nazionalismoaren borroka ideologiko-kulturala. Kapitalismoaren kritika kulturala pisua hartzen doa, klase-gatazkan oinarritutako diskurtso materialistatik aldentuz.

II. Txosteneko euskal kulturaren atalean, honako hau aipatzen da «Euskal Herriaren subirautzaren kontrako proiektu politikoen eta merkatuaren dinamika dute kulturaren eremua zehaztuta, mugatuta, bideratuta». Hau da, ekonomia eta kultura nahastuta agertzen dira, eta hain materialak ez diren arazo berriei garrantzia ematen zaie, inguruneari, kontsumismoari, sexu-askapenari, immigrazioari, kulturari eta abarri lotuak. Ezkerra balio batzuek definitzen dute, eta klase arteko gatazkan oinarritutako ikuspegia lausotzen doa. Hau da, balio «postmaterialistenganako» (Inglehart, 1977) joera nabaria da, eta balio materialistek pisua galtzen dute.

Behin eta berriro aurkitzen dugun hitz bat, aurrekoetan hainbesteko pisurik izan ez duena, «demokrazia» hitza da. «Inperialismo» hitza oso gutxitan azaltzen da, aurreko garaiarekin konparatuz, eta «klase-borroka» alboratu egiten da. Terminologia-aldaketa hau bat dator bloke sozialistaren gainbehera gertatu eta gero Ezker Berria eta batez ere mugimendu global berriak garatzen ari diren diskurtsoarekin, hain zuzen ere «demokrazia erradikala» bere erdigunean kokatzen duena.

Gainera Herri Batasunak izaera plurala eta klaseartekoa izan nahi du. II. Txosteneko «Pluraltasuna Herri Batasunaren ezaugarri» atalean esaten den bezala, «Herri Batasuna sorkuntzan eta geroagoko bilakaeran barrena, nazionalismotik hasi eta, marxismo-sozialista eta komunismoan zehar, anarkismorainoko edo kristautasunerainoko pentsamoldeak bilduz etorri dira», «Izaera aurrerazaleko ideologiak eta sentiberatasun kultural, politiko, sozial... desberdina Herri Batasunaren baitan bizi daitezke» (Herri Batasuna, 1992).

Antolakuntza-ereduan, barne-demokraziaren, parte-hartzearen eta izaera sortzaile eta irekiaren beharra ikusten du, betiko alderdi tradizionalen izaera gainditzen saiatuz, gizarte-mugimenduen funtzionamendu «erradikalki demokratikoa» bereganatuz. «Tradiziozko alderdi-ereduaren krisia» identifikatzen da, eta «politika egiteko bestelako modu» bat aldarrikatzen da, «alderdi burokratikoek helmuga hartutako ereduaren aurka, [...] instituzioetan parte hartzeko unean, normalizatu gabeko joera ezaugarri nabarmenena izango duena» (Herri Batasuna, 1992: II. Txostena, I. Kapitulumua). Kezka nabarmena dago gizarte-mugimenduekiko harremanaren inguruan. Prozesu horrek mugimendu global berrien eraketa-prozesuarekin lotura dauka, maila lokaleko mugimenduei ematen zaien garrantzia ikusita.

Nazioarteko elkartasunari buruzko puntuan zera azaltzen da: «Subirautza lortzeko borrokan ari diren herrieekin bere elkartasuna berretsi nahi eta behar du Herri Batasunak». Elkartasun hori «Inperialismoaren plegu berrien, neoliberalismo ekonomikoaren eta nazioarteko botere zentruetan gauzatzen ari den militarismoaren aurkako arbuia ketan agertzen da» (Herri Batasuna, 1992: II. Txostena, III. Kapitulumua). Bestalde, immigrazioarekiko jarrera antiarrazista ageri da —«Hego Euskal Herrira datozen langile eta inmigranteen kontrako xenofobia, arrazakeria edo diskriminaziozko edozein agerpenen aurka borrokatuko dugula hitz ematen dugu» (Herri Batasuna, 1992: II. Txostena, III. Kapitulumua)— elkartasun internazionalista Euskal Herritik praktikatzeko era moduan.

«Euskal Herria nazioarteko elkartasunezko potentzia izan dadin dihardugu lanean, Ipar bai Hegoaldeko mugimendu aurrerazaleekin batera, Estatu boteretsu zenbaitek osatutako nukleoa gainontzeko herri behartsu eta mirabeen arteko zatiketa gaindi dezan». Nazioarteko elkartasuna aurrera eramateko orduan, planteamendua 1980ko hamarkadakoa baino azalekoagoa da.

Mugimendu global berriekin alderatuz, ez da oraindik ekintza kolektibo transnazionalen berri ematen, baina «Ezker Berria» aipatzen da. HASIrekin baino ezaugarri gehiago daude mugimendu globalekin komunean. Esaterako, kapitalismoaren birdefinizioa egiten da, «neoliberalismoa» kontzeptua agertzen hasten da, eta inperialismoa ez da lehen bezala aipatzen, aldatu egin dela ohartu

direlako eta, «inperialismo plegu berriak» daudela aipatzen da (II. Txosteneko, «Nazioarteko elkartasuna» atala). Gero eta ezaugarri komun gehiago daude hamarkada honetan gorpuzten diren mugimendu global berriekin.

Hala ere, HBk bere burua «Ezker Berrian» kokatu arren, zailtasunak ikusten dira aliantzak eta elkartasun internazionalista praktikara eramateko orduan, gainerako eragile politikoek Ezker Abertzalea isolatzeko ahaleginak eraginda. IU-PCERI buruz ari dela, «ezker abertzalearen isolamendua bultzatzea, PSOErekin bat eginez Herri Batasuna FSLNren Kongresura joan ez zedin» (Herri Batasuna, 1991: 9).

Maila globaleko ekintza kolektiboarekin bat datorren elementu nabaria demokrazia erradikalaren aldeko apustua da.

Oro har, bloke sozialistaren gainbeherak eragin handia du klase-gatazkan oinarritutako diskurtsoa alboratu eta «demokrazia erradikalean» zentratutako diskurtsoa garatzean. Aldaketa hori bat dator Europako ezkerrearen barruan gertatzen ari diren aldaketekin, eta HBk horren barruan kokatzen du bere burua. Hala ere, zailtasunak nabari dira kanpora begira aliantzak gauzatzeko orduan.

6.3. 2000ko hamarkada: Batasuna prozesua

2000. urteko hamarkadan, «Euskal Herriko ezkertiarren batasuna» prozesua daukagu, izen bereko alderdiari jaiotza emango ziona. Prozesu horretan zenbait txosten aurkeztu zirenez, prozesuan garaile irten zena da interesatu zaiguna, *Bat Eginez* txostena alegia. Eztabaidarako erabilitako txostenak dira aztertuko direnak. Horiek Batasuna eratu aurretik zenbait zuzenketa jaso zituzten.

Hala ere, esan beharra dago hamarkada honetan egondako ilegalizazio-boladarekin Batasunak ezin izan zuela modu «normal» batean jardun.

«Globalizazioa» nazioarteko panorama definitzen duen kontzeptua da, oso orokorra, baina txosten horretan indar berezia duena. Oro har, globalizazio-prozesuan hiru erronka identifikatzen dira: «Bata, uniformizazio kultural eta sozialaren aurrean gure kultura, hizkuntza eta berriazko izaera jorratzea eta indartzea, [...] bigarrena globalizazio ekonomikoaren aurrean behar ditugun tresna eta baliabideak berreskuratzea [...] eta hirugarrenik, behin betiko eskenatoki libre eta demokratiko batean oinarritutako bakea lortzea» (Bat Eginez, 2000b: 54). Hori dela-eta, hiru ildo markatu daitezke: kulturala, ekonomikoa eta juridiko-instituzionala, autodeterminazio-eskubidearen aitopenearekin eta demokratizazioarekin lotuta.

Globalizazioaren ondorio ekonomikoek ez ezik, ondorio kulturek ere berebiziko kezka sortzen dute, batez ere euskal nortasunari eta euskarari lotuta: «Herri oso bat bezala pentsatzeko, aritzeko, erabakitzeko eta garatzeko aukera ukatzen zaigu eta globalizazio ekonomiko, kulturak eta linguistikoak hainbeste garrantzia duen honetan, ondorioak areagotu dira» (Bat Eginez, 2000b: 49). Mehatxu kultural gero eta handiagoak kezkatzen du ENAM. «Neoliberalismoaren ikuspuntutik ez baitago ez Euskal Herriarentzat eta ezta euskararentzat ere inolako etorkizunik,

neoliberalismoaren erabakia uniformizazioarena baita» (Bat Eginez, 2000a: 46). «Multinazionalak eta hauen zerbitzuan dauden instituzioek (FMI, BM...) zuzendutako mundu ero honetan gizarte eraikuntzak eta herritarren ongizateak indarra galdu eta individualismoan oinarritutako kultura sozial eta politikoa zabaltzen ari da» (Bat Eginez, 2000b: 50).

Espainiako eta Frantziako Estatuak jokutzen duten paperaren azterketa honakoa da: «Mendeak pasatu badira ere, bi Estatuetakoa jarrera eta izaera ukatzaile, zentralista, jakobino eta kolonizatzaileak bere horretan dirau». HASIren ponentziekin konparatuz, azpimarratzekoa da bi Estatuetikiko gatazkak maila berdinean jartzeko ahalegina. Horrek, Espainiako Estatuaren markoa gainditzeko ahalegina adierazten du.

Dena den, egoeraren azterketa Euskal Herrian zentratzen da, eta estatuaren egoerak ez dira hainbeste aztertzen. Eraikuntza nazionalari berebiziko garrantzia eskaintzen zaio, eta, ildo horretan, Euskal Herriaren «bide propioari ekiteko egituratze instituzional berriaren beharra» ikusten da (Bat Eginez, 2000b: 55), eta hori «herri dinamikarekin elkarlanean eta herrigintzaren baitan» kokatu behar da (Bat Eginez, 2000b: 60). Egituratze horretan, udalei pisu berezia ematen zaie, «herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioa delako».

Aldi berean, estatuaren instituzioetan ez parte hartzea proposatzen da «loturak apurtzen hasteko eta gure eskubide politiko eta zibilen aldarrikapena egiteko» (Bat Eginez, 2000b: 62). Europako Legebiltzarrean, «Euskal Herrian nazio edota herri gisa aurkeztea dugu helburu nagusienetakoa eta, zentzu horretan, eraikuntza nazionalaren eta eraldaketa sozialaren alde burutzen diren dinamikak islada argia izan behar dute instituzio horretan».

Nazioarteari begira, «Euskal prozesu politikoaren nazioarteratzea eta euskal gatazka Europako agenda politikoa txertatzea» da helburu nagusia (Bat Eginez, 2000b: 71). Nazioartean aliantzak bideratzeko beharra aipatzen da, «urtetan gure borroka eta proiektu politikoarekin bat etorri direnekin eta baita ere Euskal Herriak bake eskenatoki eta irtenbide demokratikoa aurki dezan bere laguntza eskaintzeko prest daudenekin» (Bat Eginez, 2000b: 74).

Eremu lokalak eta supranazionalak hartu dute garrantzia, eta Espainiako Estatuak galdu egin du 80ko hamarkadan negoziazio batera heltzeko zuen protagonismoa. Hain zuzen ere, globalizazioa eta lokalizazioa batera doazen prozesuak dira (Zabalo, 2000: 87).

Eraikuntza nazionalan, printzipio demokratikoak diskurtsoaren erdigunean kokatzen dira. Hori globalizazioaren defizit demokratikoaren arazoari doakio lotuta. Horri aurre egiteko, demokrazia formalaren salaketa eta benetako demokrazia ezartzeko apustua egiten da, mugimendu global berrien ildoan. «Demokrazia formala gainditu eta demokrazia parte-hartzailea eraikiz herritarrek erabakitze ahalmena behar dute» (Bat Eginez, 2000b: 57-58).

Horrek, Ezker Abertzalean, aurreko hamarkadako ildoari jarraituta eta Europako ezkerren kasuan bezala, «klase» irakurketak jasandako moldaketaren berri ematen digu. «Langileria»ren ordez, «herritarrez» hitz egitera pasatu dira. Globalizazioak ekarritako ongizate sozialaren atzerkadaren aurrean, Ezker Abertzaleak planteatzen duena demokrazia eta burujabetza eremu guztietara zabaltzea da. Aipatzekoa da «independentzia eta sozialismoa» beharrenean, «Independentzia eta demokrazia sozialista» aldarrikatzen dela (Bat Eginez, 2000a: 50). Aldi berean, «entrepresa publikoa desagerrarazten duten bitartean multinazionalak ari dira lekua hartzen oligopolioak osatuz. Bestalde Enpresa Ertain eta Txikientzat ez dago estrategiarik» (Bat Eginez, 2000b: 46) bezalako baieztapenek HBk izandako ildo klaseartekoa berretsi egiten dute. Aldarrikapen materialak kontzeptu orokorragoekin lotzen dira: justizia soziala, bizimodu duina, aberastasunaren banaketa eta abar.

Nazioarteko aliantzen aldetik, mundua «interkonektatuago» egon arren, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak zailtasunak ditu. Badago globalizazioaren eragina diskurtsoan, baita agian praktikan ere, baina zailtasunak daude aliantzak egituratzeko. Garai horretan, mugimendu global berriek hartu zuten indarra, eta eraketa transnazionalerako pausoak eta mundu-mailako mobilizazioak egiten hasi ziren (lehenengo Munduko Foro Soziala 2001ean Porto Alegren burutu zen), baina borroka armatuak Mendebaldean galdutako legitimitatea oztopo bat da aliantza horiek egituratzeko orduan. Deigarria da Marcos komandanteordeak —garaiko ezkerren eta mugimendu global berrien ikurra— ETAr su-etena dekretatzeko egiten dion gonbita².

ENAMEk mugimendu global berrien oso antzeko ezaugarriak izan arren, arazoak daude mugimendu horiekin bat egiteko eta Euskal Herrian Euskal Herriko Foroa artikulatzeko, nahiz eta nazioarteko foroetan parte hartu (Calle, 2005; Riviere, 2002).

Antolatzeko moduan, nabarmentzen da erakunde berriaren izaera plural eta zabala lortzeko asmoan, baina era berean, «Euskal Herrirako bakarra». «Ez dugu erakunde monolitikorik nahi. Ez dugu alderdi konbentzionalik nahi. Erakunde zabal bat nahi dugu» (Bat Eginez, 2000a: 50). Horrek plurala eta multidimentsionala izango den antolakuntza-eredu berri baten borondatea isla dezake, baina ez dator guztiz bat mugimendu global berriek hartutako antolatze «sare» ereduarekin.

Ekintza-errepertorioan, borroka instituzionala planteatu arren, borroka molde ezberdinen konbinazioa bilatzen da, herritarren protagonismoa bilatuko duena. Errepertorio berritzaileak bilatzeko kezka ere nabaria da «formula berriak bilatu behar ditugu». Desobedientzia ere planteatzen da ekintza molde bezala (Bat Eginez, 2000a: 48), mugimendu global berriekin zerikusi handia daukan tresna (Calle, 2005: 108-112). Baina indarkeriazko borrokak anomalia bat eragiten du, mugimendu global berrietan inklusioari eta demokrazia erradikalaren ereduari ematen zaien esanahiarengatik (Calle, 2015: 90-91).

2. Marcos komandanteordeak ETAr igorritako mezua irakurtzeko: <<https://www.rebellion.org/hemeroteca/spain/021212marcos.htm>>.

Azken finean Batasuna prozesuarekin izaera ireki eta zabala izango duen erakunde berri bat eratu nahi da, nazio-eraikuntzan ahalik eta subjektu gehien (EAJ eta EAren ezkerrean daudenak) barnebiltzeko, baina asmo horrek talka egiten du estrategia politiko-militarraren babes sozialaren galerarekin. Gizarte-mailan galdutako babesa nazioarte-mailan ere galtzen zen, nazioarteko ezkerreko alderdi edota eragile gehienek bortxazko borroka moldeak gaitzetsi egiten zituztelako.

6.4. 2010eko hamarkada: Sortu alderdiaren eratze-prozesua

2010eko hamarkadako Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren diskurtsoa aztertzeko Sorturen eratze-prozesuan ateratako ponentzia erabiliko da, ponentzian agertzen den modura «ENAMen ondarea [...] da SORTU» eta Sortuk bere burua «Ezker Abertzalearen adierazpen politiko nagusizat» hartzen du (Sortu, 2013: 25). Prozesu hau 2012-2013 urteetan burutu zen, Ezker Abertzalearen alderdi politikoen ilegalizazio-garai baten ondoren. Orain Sortu EHBildu koalizioaren barruan dago, beste alderdi ezkertiar eta abertzaleekin batera, eta lan instituzional gehiena koalizioaren bitartez burutzen du.

Nazioarteko egoera deskribatzeko orduan, globalizazio-prozesuaren kritikak bere horretan jarraitzen du —«SESB desagertzeak mundu mailan ongizatearen amiltzea ekarri zuen [...], eta horrekin batera mundu bipolarraren bukaera» (Sortu, 2013: 37)—. Hala ere, aldaketa garrantzitsu batzuk gertatu dira: «Munduaren ordenamendu berrien lehia bizitzen ari gara, eta botere harremanen geometrian aldaketak indartzen doaz. Batetik, herrialde garatuen [...] eta potentzia emergente berrien [...] arteko talka indartzen ari da. Mundu mailako agertokian, fase unipolarretik multipolarrerako trantsizioa irekitzen ari da [...] gerra inperialistak areagotu egin dira munduan» (Sortu, 2013: 39). Nazioarteko tentsioaren igoera antzematen da, mundu unipolarretik multipolarrera pasatuz.

Europar Batasunaren integrazio-prozesua ere ez doa bide onetik «Europar Batasunaren krisi egoerak eta mundu mailako geometria berriaren inguruko talkek [...] eragin zuzena izan du Europar Batasunaren integrazio-prozesuan, [...]. Kontseilu Europarrak eta Komisioak, parlamentuari, instituzio gisara, muzin eginez, finantza erakundeen esku utzi dute integrazio-prozesuaren birdefinizioa» (Sortu, 2013: 38-39).

Arlo sozialean, «Ongizate Estatuari loturiko oinarrizko eskubideetan ematen ari den atzerakadak herritarren eta langile klasearen bizkar kokatu ditu krisiaren ondorio nagusiak. Egoera honetatik etekina ateratzen duten klase aberatsenak, oligarkia, banku handiak eta multinazional nagusiak dira» (Sortu, 2013: 39). Hala ere, «egoera honen aurrean, munduko ezker oso ahul ageri da». «Ezker tradizionala ahulduta egon arren, badaude ezkerreko beste adierazpen batzuk indarra hartzen ari direnak, baina ez dute lortu bizi dugun krisi sozioekonomikoaren aurrean eredu alternatibo bat artikulatzea» (Sortu, 2013: 39). European, «sozialdemokraziak ez du alternatiba errealik eskaini», eta Europako ezkerreko zenbait indar aipatzen dira: Bloco de Esquerda, Die Linke, Front de Gauche eta abar. Aipamen berezia egiten zaie Syrizarri edota Sinn Feini, «agertoki politikoaren erdigunean kokatzeko erakutsi

duten gaitasunagatik» (Sortu, 2013: 39). Ezkerra ez dago oso egoera onean, eta mundu-orekaren ezegonkortzea ezkertiarrek ez diren indarren eskutik etortzen ari da. Hala ere, aukerak ikusten dira planteamendu berriak aurrera eramateko.

«Aldi berean, Nazio-estatu eredia krisian sartu da, Estatuaren barnean zeuden Estaturik gabeko nazioak, Estatu berriak bihurtuz (Herrialde Baltikoak, Montenegro, Kosovo...)» (Sortu, 2013: 39-40). Horrez gain, «Estatuaren eta nazioartean aurrera egiten ari diren prozesuek (Eskozia, Quebec, Katalunia...) independentziaren aldeko joera indartu egin dutela gurean ere» (Sortu, 2013: 46). Frantziako Estatuak «mundu mailako potentzia gisa izan duen posizioa guztiz higatua du» (Sortu, 2013: 40), eta Espainiako Estatuak «krisi sakona, oso sakona pairatzen ari da» (Sortu, 2013: 41). Hortaz, egoera gatazkatsua baina aukeraz betearen irakurketa egiten da.

Nazioarteak garrantzi handiagoa eskuratu du gatazkaren konponbiderako: «SORTUrentzat ezinbestekoa da Estatuak eta Estatu moduan dagozkien tresna guztiak eratzea [...] Nazioen eta Estatuaren Nazioarteko Komunitatearen aurrean Euskal Herria berezko subjektu gisa identifikatzeko eta kohesionatzeko, gure nazioarteko harremanen eredia erabakitzeko eta Europan nahiz mundu zabalean gure herriaren interes nazional eta klasekoak defendatzeko» (Sortu, 2013: 55). Horregatik, gero eta gehiago begiratzen zaio nazioarteko komunitateari Euskal Estatuak eraikitze bidean. Joera horrekin lotuta, aurrerago aldarrikatzen diren eskubideen artean, Euskal Herria «Nazio eta Estatuaren Nazioarteko Komunitatean parte hartzeko eskubidea ukatzen zaiola» salatzen da (Sortu, 2013: 64).

Espainiako eta Frantziako Estatuaren blokeoa gainditzeko ere nazioarteak garrantzi handia hartu du, aldebakartasuna Euskal Herriari eta nazioarteari bideratuz. Hortaz, eragileekin martxan jarri diren dinamika garrantzitsuenak gatazkaren konponbidearen ildoan kokatzen dira: «Nazioarteko eremuari dagokionez, SORTUK Aieteko Adierazpenaren edukiak hartzen ditu oinarritzat, eta Harremanetarako Nazioarteko Taldea nahiz Nazioarteko Egiaztatze Batzordea egiten ari diren lana babestuko du» (Sortu, 2013: 66).

Ildo horretan, izaera internazionalista berretsi nahi da, «herrien eta langileriaren burujabetzan oinarritutako Europa» aldarrikatuz eta «Europako langileriarekin antolatze asmoa» aipatuz (Sortu, 2013: 26). Gainera «Euskal Estatuak sortzea, ezinbesteko baldintza da benetako politika internazionalista aurrera eraman ahal izateko».

Terminologiaren aldetik, ponentzia honetan erabilitako lexikoa askotarikoa da. Demokraziak eta parte-hartzeak pisua izaten jarraitzen dute, baina 1990. eta 2000. urteetako hamarkadetan alboratutako klase-gatazkaren eta iraultzaren erreferentziak berreskuratu egiten dira —klase-gatazka, ekoizpen-bideen jabetza publikoa, iraultza, «Euskal prozesu iraultzailea» (Sortu, 2013: 51)—. Berdina gertatzen da Euskal Langile Herria, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua eta beste zenbait kontzeptuekin, aurreko bi hamarkadetan alboratuta geratu direnak.

Sozialismoa, «Euskal Herriko langile klasearen programa propio gisa» ulertzen da. «Prozesu horren gidaritzan Euskal Herriko langile klaseak izan behar du» (Sortu,

2013: 18). Baina sozialismorako prozesu hori «gure herriaren ezaugarrietara egokitzen da, [...] zentzu horretan, sozialismo identitarioaz ari gara [...] Horretan datza XXI. mendeko sozialismoa deritzanaren funtsa» (Sortu, 2013: 18). Bestalde, «Euskal Herrian klase borrokak Askapen Nazional eta Sozialerako borrokaren forma eta edukia hartzen ditu» (Sortu, 2013: 54) eta «ezinbestekoa da subjektu iraultzaile berriaren osaerari beste eduki bat eranstea: euskal nazioko kide izatearen sentimendutik eta euskal nazio askapenaren aldeko kontzientziatik sortutako nazio nortasuna» (Sortu, 2013: 56). Kontzeptu «zaharrak» berreskuratu egiten dira, globalizazioarekin indartutako kontzeptuekin nahastuz. Klase-ikuspegia, kapitalismoaren kritika kulturalarekin eta balio postmaterialistekin batera agertzen da.

Orain ere «demokrazia» kontzeptua behin eta berriro agertzen da, baina sarritan «iraultza» terminoarekin lotuta —«Iraultza Demokratiko Nazionala»—. Terminologia-aldaketa hori mugimendu global berrien eta Munduko Foro Sozialen oihartzunaren gainbeherarekin eta munduaren unipolartasunaren amaierarekin batera gertatzen da, baina baita ETAk ENAMen erreferente sinbolikoa izateari uzten dionean ere.

Mugimendu global berrien ezaugarriekin alderatuz, sistema kapitalistaren analisia ez da 1980ko hamarkadakoaren berdina, baina garai horretako termino batzuk berreskuratu egin dira, haiekiko jarraitutasun terminologiko bat adieraziz. Espainiar eta frantziar nazio-estatuaren eredu krisian dagoela nabarmenki azpimarratzen da, baina baita ordena globalaren desoreka ere. Gainera, haien blokeo-jarrera ikusita, Nazioarteko Komunitatea garrantzi handiagoa hartzen ari da: «Aldebakartasuna batez ere euskal jendarteari eta nazioarteko komunitetari zuzendutako urrats politikoa da» (Sortu, 2013: 57); globalari eta lokalari zuzendutakoa beraz.

7. Ondorioak

Globalizazio-prozesuak diskurtso-aldaketa eragin du Ezker Abertzale eta ENAMen. Identifikatzen dugun diskurtsoaren aldaketa nagusia ildo demokratikoak eta eraikuntza nazionalak hartutako garrantzia da, estatuak gatazka nazionalaren kudeaketan galdutako pisuagatik eta «demokrazia erradikalak» ezkerreko diskurtsoan hartutako zentralitateagatik. Euskal Herria - Espainiako Estatu gatazka-ardatza nolabait ahuldu egin da, aldebakartasunezko eraikuntza nazionalari garrantzia emanez. Egia da gatazka nazionala kudeatzeko estatuaren gaitasun eza barik, borondate eza dela gaur egun gertatzen dena, baina gatazka sakontzen doan heinean, nazio-estatuaren krisi-prozesuak eraginda, borondate eza gaitasun eza bilakatuko da, Kataluniako prozesu independentistarekin gertatzen ari den bezala.

Globalizazioarekin, nazioarteak pisu gehiago dauka estatu barneko gatazketan. Izan ere, estatuaren eskumenen transferentzia estatuz gaindiko erakundeetara pasatzen joan da, eta estatuarekiko negoziazioak garrantzia erlatiboki galdu egiten du. Hori dela-eta, negoziazio-fasetik eraikuntza nazionalerako fasera pasatzen da, eta nazioarteko eragileak interpelatzeko ahalegina egiten da. Indar nazionalistek beren arazo nazionala konpontzeko nazioarteko eragileetan aukera politiko berriak ikusten dituzte.

Gainera, nazioarteko erakundeen ordezkartzaren legitimitate faltak agerian jartzen du globalizazio-prozesuaren defizit demokratikoa. Izan ere, orain arte estatuaren jarduna «hauteskunde demokratikoez legitimatu» badute ere, hauteskundeek politika instituzionalean gertatzen denaren gero eta zati txikiagoa legitimatzen dute. Horrek, «demokrazia erradikalaren» edo «errealaren» aldarrikapenak indartzea eragin du. ENAMen kasuan, bere borroka hasiera batean legitimitate iraultzailearekin gauzatzen bazuen ere, Sobietar Batasunaren gainbeheratik aurrera, legitimitate demokratikoak justifikatzen du, KAS Alternatibatik Alternatiba Demokratikora pasatuz.

Nazionalismoa ziklo berri batean kokatzen da, mundu-mailan gauzatzen ari den ekintza kolektiboko ziklo baten barruan. Ekintza kolektibo horren zabaltasuna ulertzeko, jihadismoaren gorakada, Brexita, Trump-en garaipena, Front National-aren arrakasta elektoralak eta abar koka genitzake ildo horretan, horiek ere nabarmenki nazionalistak baitira. Nazio-ikuspegitik, estatu nazionalaren krisiaren sintomatizat har daitezke gertaera horiek, erreakzionarioa, sozialista demokratikoa edo iraultzailea izan. Klase-gatazkak funtsezko papera jokatzen du horretan. Klase-gatazkaren egoeraren eta eragile politikoen indar-korrelazioaren arabera, nazio-arazoaren planteamendua modu batera edo bestera islatuko da. Front National eta Trump-en kasuetan, nabaria da burgesiaren estratu ezberdinen arteko interes-gatazkak direla aldarrikapen nazionalaren atzean daudenak.

Beraz, Letamendia eta Ibarrek (1999: 374) proposatutako gatazka nazionalen tipologia hankamotz geldituko litzateke. Ibarra eta Letamendiak proposatutako gatazka nazionalaren hiru adierazpen motei laugarren bat gehituko genieke, globalizazioaren testuinguruan kokatzen dena. Laugarren tipologia horrek Ezker Berriaren eta mugimendu global berrien elementuak bereganatzen ditu, eta euskal nazionalismoaren kasuan agertzen zaizkigun funtsezko elementuak demokrazia, aldebakartasuna eta nazioarteko komunitatera jotzea dira.

Bibliografia

- Aginako, J. eta beste (1999): *Herri Batasuna: 20 años de lucha por la libertad: 1978-1998*, Herri Batasuna, Euskal Herria.
- Apaolaza, U. (2012): «Euskal naziotasuna: independentziarako estrategia bat», in A. Aizpuru, B. Altonaga, I. Gallettebeitia eta A. Olariaga (koord.), *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*, UEU, Euskal Herria, 91-104.
- Barcena, I. eta Larrinaga, A. (2004): *Politika eta gizartea : oinarrizko ikasgaiak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Bat Eginez (2000a): *Eraiki nahi dugun Herritarren Batasuna*, Euskal Herriko Ezkertiaren Batasuna, Euskal Herria.
- _____, (2000b): *Jarduketako ildo politikoa*, Euskal Herriko Ezkertiaren Batasuna, Euskal Herria.
- Beltza (1978): *Del carlismo al nacionalismo burgés*, Txertoa, Donostia.
- Calle, A. (2005): *Los nuevos movimientos globales: hacia la radicalidad democrática*, Popular, Madril.
- Ezker Abertzalea (2010): *Zutik Euskal Herria*, Euskal Herria.

- Cirulli, A. (2012): *L'ascia e il serpente. L'ETA e il nazionalismo basco dopo la lotta armata*, Datanews, Erroma.
- de Pablo, S.; de la Granja, J.L. eta Mees, L. (ed.) (1998): *Documentos para la historia del nacionalismo vasco : de los fueros a nuestros días*, Ariel, Bartzelona.
- Gellner, E. (2009): *Nazioak eta nazionalismoak*, Klasikoak, Bilbo.
- Guibernau, M. (2008): *Nazio-nortasuna globalizazio-aroan: nazioen erronkak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Herri Batasuna (1991): *Urrats Berri. 1. Oinarrizko txostena. Egoera politikoaren azterketa*.
- _____, (1992): *Urrats Berri. Behin betiko dokumentuak, eztabaidan onartutako ekarpenak eta zuzenketak jasota (2., 3. eta 4. txostenak)*.
- Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea (1983): *II. Biltzarrea / II. Congreso. Independentzia eta sozialismoaren bidean: desarrollar el partido, fortalecer el bloque KAS, avanzar con la unidad popular HB*.
- Hirsch, J. (1997): «¿Qué es la globalización?», *Realidad Económica*, **147**, 7-17.
- Ibarra, P. (1999): «¿Qué son los movimientos sociales?», in E. Grau eta P. Ibarra, *Una mirada sobre la red: Anuario de Movimientos Sociales*, Icaria, Bartzelona.
- _____, (2005): *Manual de sociedad civil y movimientos sociales*, Síntesis, Madril.
- Ibarra, P. eta Letamendia, F. (1999): «Los movimientos sociales», in M. Caminal, *Manual de Ciencia Política*, Tecnos, Madril
- Inglehart, R. (1977): *The Silent Revolution: Changing values and Political Style Among Western Publics*, Princeton University Press.
- Juaristi, P. (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, Euskaltzaindia, BBK fundazioa, Bilbo.
- La Vanguardia (1992): «El partido HASI se disuelve y se integra en el bloque KAS», *La Vanguardia*, 1992ko otsailaren 19a.
- Laurenzano, M. (2000): *ETA. Il nazionalismo radicale basco 1973-1980*, Semar, Erroma.
- Letamendia, F. (2013): *El hilo invisible: Identidades políticas e ideologías*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Lipset, S.M. eta Rokkan, S. (1967): *Party systems and voter alignments: cross-national perspectives*, Free Press, New York.
- Miller, D. (1988): «The Ethical Significance of Nationality», *Ethics*, **98**, 647-662.
- Riviere, J. (2002): «Foro Social de Florencia. Desacuerdos con Joseba Álvarez», *El Periódico de Álava*, 2002ko azaroaren 16a.
- Rosas, A. (1993): «Globalización cultural y antropología», *Alteridades*, **3(5)**, 79- 91.
- Rubiralta, F. (1997): *El nuevo nacionalismo radical. Los casos gallego, catalán y vasco (1959-1973)*, Hirugarren Prentsa, Donostia.
- Santamaría, A.R. (2001): *Los nacionalismos: De los orígenes a la globalización*, Bellaterra, Bartzelona.
- Saratxo, M. eta Zabalo, J. (2013): «Razones estratégicas para el final de la actividad armada de ETA», *Viento Sur*, <<http://vientosur.info/spip.php?article8086>> (Kontsulta: 2017-07-04).
- Sassen, S. (2007): *Una sociología de la globalización*, Katz, Buenos Aires.
- Sortu (2013): *Sortu. Auzolan politiko irekia, kolektibo eta parte hartzailea*, Sortu, Euskal Herria.
- Vilaregut, R. eta Gómez, D. (2014): «Què é l'Esquerra Abertzale», in R. Vilaregut; D. Gómez; P. Ibarra eta M. Zubiaga, *La rebel·lió basca. Una història de l'Esquerra Abertzale*, Icaria, Bartzelona.
- Zabalo, J. (2000): *Abertzaleak eta ezkertiarak*, Elkarlanean, Donostia.
- Zabalo, J. eta Odriozola, O. (2017): «Eredu aldaketa euskal nazionalismoan? Demokrazia kontzeptuaren garrantzia», *Jakin*, **219**, 59-80.

Zubiaga, M. (2014): «El ciclo de protesta en Euskal Herria: hegemonía y radicalización democrática», in M. Zubiaga eta beste, *La rebel·lió basca. Una història de l'Esquerra Abertzale*, Icaria, Bartzelona.

